

# KOLABORAZIOAK

Paulo AGIRREBALTZATEGI / Idazlea

## Euskararen mundua bateratu

*Euskalgintza-ko munduak erreakzionatzeko indarra aurkitua du*

**E**USKALGINTZAREN mugimendu soziala mugitzen ari da. Euskararen Unibertsuaren Jardunaldiak antolatzeko talde eragileak horixe ikusi du azken hilabeteotan euskal kulturagintzako erakunde, elkarte eta taldeekin izan dituen harremanetan. Bestelako erakunde politiko eta sozial askorekin egindako elkarriketa positiboen ondoren etorri dira azken hurremanok, martxoaren 7-8 egunetan Donostian egingo diren Jardunaldiei begira, eta horren ondoren eratuko den Euskararen Gizarte-Kontseiluari begira.

**Urrats koalatiboki berria aurrera.**

Euskalgintzaren munduaren sakanaketa aitortetik, eta horrekiko kezka bizia aztertetik hasi zen euskararen unibertsua berreraikitzeko azken ahalegina; eta gero eta argiago geratzen ari da, analisia zuzena zela: kezka sakona eta zabal delat, eta horren arabera egoera gaitzetzeko gogoia.

Azken urteotan euskararen normalkuntzarako bidean izandako eraso ideologiko eta politikoen ondorioz, zalantzak kokilduta eta noraezko sentipenak hartuta ari ginela zirudien; ondorioz, defentsibane edo jarrita geundela ematen zuen. Orain kontrakoa esan daitekeela dirudi: euskalgintzako munduak erreakzionatzeko indarra aurkitua du; indar horixe bideratu nahi dute martxoako jardunaldiek. Erreakzioa ez da lehenagoko egoerara itzultzeko joera atzerakoa, urrats koalatiboa aurrera egiteko erabakia baizik.

Aurreerako urrats horrek, ordea, ez du itsumustuan aurrerantz ihes eta hutsunean jauzi egitea izan behar. Helburu bat du: euskararen normalkuntza eta berreskurapen osoa; oinarri bat du: euskalgintzako mundu ugariaren barruko koordinazioa; eta tresna bat du: plangintza orokorra. Uste izatekoa da, koalatiboki ezberdina izan daitekeela aurrera begira euskalgintzaren mundua, eta horrek eragin behar du euskararen unibertsua.

**Euskalgintzako mugimendu sozial ugaria.**

Utz dezagun behingoz mundu eta unibertsuaren irudikapen kosmikoari eta hel dieziagun horien kontzeptu soziologikoari, errealtate soziala aztertze bidea irekitzen baitigu honek, metafora literario eta abstrakzio filosofikoez haraindi.

Euskararen mugimendu soziala oso ugaria da: taldeak eta elkarreak, koordinakundeak eta erakundeak, enpresak eta fundazioak, federazioak eta konfederazioak, mintegiak eta batzordeak, eskolak eta akademak, forumak eta txokoak, kafe-teatroak eta hitzaldi-aretoak; antzerki-taldeak eta zine-klubak, aldizkariak eta egunkaria(k), liburuen eta diskoen argitaletxeak, irratia eta telebista, unibertsitateak eta institutuak, liburutegiak eta kulturetxeak, entziklopediak eta hiztegiak, datu-bankuak eta hornitzaile telematikoa, itzultzaile-taldeak eta bikoiztaile-enpresak, zinema-ekoizleak eta antzerki-aretoak, liburu-dendak eta azokak, kultur eragileak eta kantaldi-antolatzaileak, topaguneak eta elkarguneak.

Aberatsa da gaur egun euskararen mundu soziala; entitate bakoitzak ditu bere abiaburuak eta helburuak, bere egitekoa eta egitura, bere lan-modua eta bizimodua. Mundu horren koordinazioerako antolakuntza

berria da beharrezkoa, gorputz soziala, sendoa eta indartsua, eratzeko, bestelako mundu sozialek aintzakotzat hartuko dutena, eta bestelako mundu sozialei eragingo diena.

**Erakunde eta elkarrekin lekuz aldatu behar?**

Martxoaren 7-8ko jardunaldietan proposatu eta eztabaidatuko den Euskararen Kontseilu Sozialaren aurrera, euskalgintzako erakunde eta elkarrekin lekuz aldatu beharko dute bakoitzak izango duen lekua kontseiluan; baina ondorioz aztertu beharko, baita ere, zein moldaketa egin beharko duen barru begira, neurri batez funtzio-moldaketa berria ekarriko duelako hark, denen ahaleginak (bateratzeari begira).

Horiek ez dute berez zalanztan ipini beharko orain arte bakoitzak bete duen programa, egun duen lana eta diseinatutik duen egitasmoa; ezta bere barruko erakuntza ere; ez EHIEk eta ez AEK-k, ez EKBk eta ez Herrietako Elkarrekin Topagu-

neak. Inork ez du seguruenik koordinakunde berrian suntsitu beharrik izango. Baina denek beharko dute birkokatu beren burua, euskalgintzaren munduaren erakuntza sozial berriaren beren lana betetzeko. Bakoitzak bere barrutik indarberritzeko behar du aztertu Euskararen Gizarte Kontseiluaren bateraguneari begira.

**Euskal komunitatearen garapenerako.**

Euskalgintzaren mundua ez da ari inolako interes gremialari begira bere berreraikuntzari begira, eta horretarako bere gorputz soziala sendotu nahian. Euskal komunitateari zaio interesatzen horren trinkotzea, gorputzea eta sendotzea, hizkuntza minorizatua berreskuratzeko eta kultura gutxitua suspertzeko beharrezkoa baita horrelako gune soziala, komunitateari osoari eragingo diona.

Euskal komunitatearen garapenerako eta horren zerbitzuan ulertu behar da azken batez aurrera eraman

nahi dugun euskalgintzako mundu sozialaren indarberritzea eta berreskurakuntza.

**Mundu sozial guztiei eragiten.**

Areago doa, ordea, euskalgintzaren mundu sozialaren berreraikuntzaren asmoa: helburu sektorialetatik haraindi, alegia. Barnera begira baino gehiago kanpora begira doa asmo hori. Euskalgintzaren munduak bere suspertze berria, koordinazio berria eta erakuntza berria bilatzen ditu, euskararen unibertsuan eragiteko.

Sektore sozial guztiek (ekonomikoak, politikoak, kirolak, erlijioarenak, merkataritzarenak, sindikalak, finantzetakoak eta kulturakoak), denek osatzen dute euskararen unibertsua, euskal herritar guztiekin batera, euskara denetan dagoelako eta denena delako, eta euskararen berreskurapenak denak inplikatzen dituelako. Euskararen normalkuntzarako plangintza egin eta aurrera eramateko, euskararen unibertsu sozial osoa du partaidetza bizia hor.

Hain zuzen ere, Euskararen Gizarte Kontseiluaren egiteko behinena Euskararen Normalkuntzarako Plangintza Orokorrarena da. Euskararen unibertsu osoari interesatzen zaio euskalgintzaren gorputzea eta indarberritzea; eta horren (bateratzea, horrela bakarrik lortu ahal izango da gizartearen sektore eta mundu sozial, ekonomiko, politiko eta kultural guztiak —euskararen unibertsu zabal hori— gure hizkuntza normalkuntzako plangintzari begira (berr)eratztea: euskararen inguruan, hain zuzen ere.

**...eta erakunde publikoei lurra lantzen.**

Bereziki euskararen normalkuntza aurrera bultzatzeko politika egin behar duten erakunde publikoek interesatzen zaie euskal mugimendu soziala zabaltzea eta indartzea eta euskalgintzaren munduaren koordinatzea eta sendotzea. Oinarri sozial zabal eta eraginkorrik ez, euskararen normalkuntzarako horien lege eta arauak denak, programa eta plangintza txikiak eta nagusiak, aldarrikapen eta ahalegin instituzional guztiak kamuts eta erdibidean geratuko lirarteke.

Benetan txundigarria eta tristagarria gertatzen da zenbait aldiz erakunde publikoetako ordezkari batzuk, euskararen aldeko mugimendu sozialaren erakuntza beldurrez eta uzkuratsunez, lehiakidetzat eta aretiaz, hartzen dutela ikustea, eta horko erakundearen ekimen baliagarriak beren ahaleginen aurkakotzat jotzen dituztela. Euskararen normalkuntzako edonolako politika instituzional jatorrek indar sozialetan oinarritu behar du, eta horregatik zinez interesatzen zaio horien zabaltzea, gorputzea, sendotzea eta egoki eratztea.

**Bukatzeke.**

Berriki ateratzen den hiztegiaren batek arrakastatsuzat jotzen du orain ja hamar urte ikastolen eta EKBren artean antolatutako Bateginik kanpaina, mugimendu sozialari zegokionez behintzat. Ekintzaldi haren ildotik idatzi nuen artikulutxo bat «Bateginik gaude, (bateratu) gaitetzen» titulupean, han lorturiko ekintza-batasunaz haraindi jo nahian.

Orduan amets geratu zena, orain gautzatez ote dago? Gogorik ez da falta eta bada itxaropenik.

